



BALIO PROPOSAMENA

Lasergune bat egitea pentsatu dugu, ikusten dugulako gazteek entretenitzeko beste modu berri bat behar dutela, baita nagusiak ere, bere errutinatik ateratzeko eta denbora modu entretenigarri batean inbertitzeko, familiarekin kalitateko denbora pasatzeko modu berezia da, baita lagunekin ere. Gainera, Bilbon eta bere inguruan ez dago hau bezalako negozioirik. Lehen lasergune bat zegoen Egia Jeneralaren Klean, San Mamesetik urbil, baina itxi zuten.

Dinamika berezi bat egitea pentsatu dugu. Bi talde egongo dira eta hiru ronda. Lehenengo eta bigarren rondetan bi taldeak borrokatuko dute eta lortzen duten puntuazioarekin bere basea hobetuko dute eta arma obeak "erosiko" ahal egingo dute.

Hirugarren rondan talde bakoitza bere basea defendatuko dute eta beste taldearena eraso. Irabaziko du beste taldeko basea "apurtzen" dutenak. Horretarako, etsaien basean satu beharkio dira, eta sabaian lanpara moduko gauza batera tirokatu beharko dute basea apurtzeko, 40 aldiz tiro egiten badute, apurtuko da.

Gainera, espazioko gaia izango du eta zoru biguna jarriko dugu. Paretetan dekorazioak jarriko ditugu, ala nola, led argiak, planetak eta izarrak, eta mota horietako dekorazioak.

Azkenik, gurasoentzat taberna bat jarriko dugu, eta partida ondoren, nahi badute, bokatak hartzeko aukerarekin, patata tortilarekin, urdailazpikoa, freskagarriak... Horrela, gurasoek ere lasai egon ahal izango dute, hurrek dibertitzen eta seguru pasatzen duten bitartean.